

Covid-19

Covid-19aren pandemiak sortutako krisiak eragin zuzena izan du jarduera ekonomikoan eta pertsonen mugikortasunean, eta begi-bistako ondorioak izan ditu adierazle ekonomiko, sozial eta demografiko nagusien bilakaeran.

TITULARRAK	ADIERAZLEAK		
	Azken datua	Δ Urte artekoa (%) <small>*aurreko aldia</small>	Azken datuaren data
<ul style="list-style-type: none"> Guztira, 22.661 langabe erregistratu dira urtarrilean. Afiliatutako biztanleek kopuruak % 1,3 egin du gora abenduarekin alderatuta, eta 3.299 enplegu gehiago daude urtebetean (% 1,8). Erregistratutako kontratuak % 29,6 egin dute gora 2021eko urtarrilari dagokionez. Urtetik urtera, halaber, ostatu-gauak (% 196,4) eta bidaiarien sarrerek egin dute gora (% 177,9). Gehiago igo dira atzeritik datozen sarrerak (% 528,6) estatutik datozenak baino (% 127,5). Txikizkako merkataritzako salmentek % 3,2 egin dute gora laugarren hiruhilekoan, eta urte osoan % 3,3. Saltoki handietan eta elikadura-kateetan urte arteko gorakada % 5,0 izan da. Bestalde, zerbitzuetako salmentek % 12,8 egin dute gora urterik urte. Bilboko aireportuak 183.141 bidaiari erregistratu ditu urtarrilean, 2021eko urtarrilean baino % 218,3 gehiago. Bilboko Portuan 2,5 milioi tonako trafikoa erregistratu da urtarrilean, aurreko urteko hil berean baino -% 1,9 gutxiago. Hiriko eta metropoliko garraioan, 15 milioi bidaiari gehiago egon dira 2021. urtean, eta, guztira, 88,2 milioi egon dira. 	<p>Lan-merkatua</p> <p>Afiliatutako biztanleak (kop.) 182.079</p> <p>Erregistratutako langabeak (kop.) 22.661</p> <p>Erregistratutako kontratuak 13.445</p> <p>Merkataritza</p> <p>Txikizkako merkataritza: salmenta-indizea (2015. urtea = 100eko oinarria) 117,0</p> <p>Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2015. urtea= oinarria 100) 119,9</p> <p>Turismoa</p> <p>Bidaiarien sarrera (kop.) 39.054</p> <p>Ostatu-gauak (kop.) 70.726</p> <p>Ekonomia</p> <p>Zerbitzuak: salmenta-indizea (2015. urtea = 100eko oinarria) 110,2</p> <p>Garraioa</p> <p>Bidaiarien aireko garraioa (kop.) 183.141</p> <p>Salgaien itsas garraioa (milioi tona) 2,5</p> <p>Hiriko garraioa eta metropoliko garraioa (milioi bidaiari) 88,2</p>	<p>1,3*</p> <p>2,4*</p> <p>29,6</p> <p>3,2</p> <p>5,0</p> <p>177,9</p> <p>196,4</p> <p>12,8</p> <p>218,3</p> <p>-1,9</p> <p>20,2</p>	<p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>2021eko 4. HH</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>urt.</p> <p>2021</p>

DATU BAT

% 3,2

Txikizkako merkataritza-salmentak

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia-tasa

Urtarrilean 530 langabe gehiago erregistratu dira; horrek esan nahi du % 2,4ko igoera egon dela hilabete batetik bestera, eta 22.661 langabe daudela udalerrian.

Emakumeen langabezia igo egin da (% 3,5) eta gizonena ere bai (% 1,1), 418 eta 112 langabe gehiago hurrenez hurren. Nolanahi ere, langabeziak gehiago eragiten die emakumeei.

Erregistratutako langabeziak gora egin du adin-talde guztietan: talderik gazteenean % 4,3 egin du gora, 25-44 urte arteko taldean % 2,6 eta 45 urte eta gehiagoko tartean % 2,0 (72, 212 eta 246, langabe gehiago hurrenez hurren).

Sektoreen arabera, langabeziak gora egin du zerbitzuetan (536 langabe gehiago datu absolutuetan) eta industrian (7 gehiago); eraikuntzan eta lehen sektorean behera egin du (23 eta 1 gutxiago kasu bakoitzean). Aurrez lanik ez zuen taldean gora egin du, 11 langabe gehiago baititu hilabete honetan.

EAEan % 1,0 bat hazi da langabezia. % 1,0 igo da Gipuzkoan eta Bizkaian eta % 0,6 Araban.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu nagusietan (G-5) erregistratutako langabeziaren bilakaerak $-%$ 3,8ko jaitsiera erakutsi du aurreko hileko datuen aldean. Bartzelonan eta Sevillan gora egin dute langabeen kopuruek (% 1,2 eta % 2,6, hurrenez hurren). Gainerakoetan behera egin dute. Madrilek izan du beherakadarik ageriena ($-%$ 8,6).

Euskal hiriburuen taldean (G-3) langabeziak % 2,4 egin du gora. Langabeziak gora egin du Gasteizen (% 1,0), Iruñean (% 3,4) eta Donostian (% 3,8).

Afiliatutako biztanleak

Bilboko enpresetan afiliatutako biztanleak 182.079 izan dira urtarrilaren amaieran; hau da, aurreko hilean baino 2.303 afiliatu gutxiago egon dira (% 1,3 gehiago).

Urte arteko terminoetan, Bilboko enpresek 3.299 enplegu gehiago erregistratu dituzte urtarrilean, % 1,8.

Araubideen arabera, Araubide Orokorrean 2.363 lan gehiago daude abenduan baino (% 1,6). Langile autonomoen araubide berezian 45 langile galdu dira, eta 24 etxeko langileen araubidean ($-%$ 0,2 eta $-%$ 0,4, hurrenez hurren).

Erregistratutako langabeak

Urtarrila	22.661 pertsona
	% 2,4 ▲
Emakumeak	% 3,5 ▲
Gizonak	% 1,1 ▲

Benchmarkinga

Bilbo	% 2,4 ▲
G-5	% 3,8 ▼
G-3	% 2,4 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3 Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Afiliatutako biztanleak

Urtarrila	182.079 pertsona
	% 1,3 ▲
Araubide orokorra	% 1,6 ▲
Autonomoak	% 0,2 ▼
Etxeko Sistema Berezia	% 0,4 ▼
Beste batzuk	% 1,4 ▲

Euskal Autonomia Erkidegoan afiliatutako biztanleen - kopuruak % 0,6 egin gu behera hilabete batetik bestera. Bizkaia eta Araba behera egin du, -% 0,6 bi kasuetan, eta Gipuzkoan -% 0,7 murriztu da afiliazioa.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 1,1eko gorakada islatu du aurreko hilaren aldean. Sevillan izan ezik (% 0,0), gorakadak izan dituzte gainerako hiri guztiek. Zaragozan erregistratu da gorakadarik handiena (% 1,9).

G-3ko hiriburuetan, batera hartuta, afiliatuen kopurua igo egin da: % 1,4. Gasteizen % 0,7 igo da, Donostian % 1,1 eta Iruñean % 2,7.

Benchmarkinga

Bilbo	% 1,3 ▲
G-5	% 1,1 ▲
G-3	% 1,4 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3 Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urtarrilean 13.445 kontratu formalizatu ziren Bilbon, hau da, % 29,6 gehiago aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (3.073 kontratu gehiago). 2021eko urtarrilarekin alderatuta, gora egin dute gizon zein a emakumeei egindako kontratuak: 1.245 eta 1.828 gehiago izan dira, hurrenez hurren.

Adin-tarteen arabera, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen dagokie erregistratutako kontratuen % 51,3 (6.901 kontratu); % 29,1, berriz, 45 urtetik gorakoei (3.918), eta gainerako % 19,5 25 urtetik beherakoei (2.626).

Sektoreen arabera, zerbitzuen sektoreak 2021eko urtarrilean baino 2.914 kontratu gehiago izan ditu. Igo egin dira industrian (179 gehiago) eta lehen sektorean (3 gehiago), eta bakarrik jaitsi dira eraikuntzan (23 gutxiago).

Zerbitzuetan, nabarmentzekoa da, datu absolutuetan, ostalaritzan (1.035 gehiago), osasuneko eta gizarte zerbitzuetako jardueretan nahiz garraio eta biltegiatzeetan (503 eta 395 gehiago, hurrenez hurren) izandako kontratuen igoera. Merkataritzan, administrazio-jardueretan, hezkuntzan, arte-jardueretan, aisialdikoetan eta entretenimenduzkoetan ere kontratuen gorakada garrantzitsuak izan dira: (319, 273, 207 eta 206 gehiago, hurrenkera) horretan.

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 87,1 izan dira. Urtarrilean 9.791 pertsona kontratatu dira, eta % 56,9 emakumeak izan dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,37 kontratu.

Erregistratutako kontratuak

Urtarrila	13.445 pertsona
	% 29,6 ▲
Emakumeak	% 30,8 ▲
Gizonak	% 28,1 ▲

MERKATARITZA

Txikizkako merkataritza

Bizkaiko txikizkako merkataritzaren sektoreak salmenten % 3,2ko gorakada izan du laugarren hiruhilekoan. Erregai-zerbitzuguneetan automobilgintzarako egindako erregaiaren salmenta kontuan izan gabe, salmentek % 3,2 egin dute gora.

Aurreko hilabeteari dagokionez, txikizkako salmentak % 0,9 handitu dira.

Sektoreka, urtetik urtera elikagaien saltokien salmentak murriztu egin dira (-% 2,9), eta gainerako produktuenak, berriz, handitu (% 8,6). Ibilgailuetarako erregaien salmentak gora egin du (% 4,8).

Bizkaiko txikizkako merkataritzako sektoreko landunak % 4,9 areagotu dira urtetik urtera.

Lurraldeen arabera, txikizkako salmentek urterik urte gora egin dute Gipuzkoan (% 7,3), baina behera Araban, -% 4,7 gutxiago. EAEn, orokorrean, % 3,3 egin dute gora.

2021. urteko balantzea Urte osoan, txikizkako merkataritzako salmentek % 3,3ko gorakada izan dute aurreko urtearekin alderatuta. Salmentek, gasolina-zerbitzuguneak kanpo utzita, % 3,1 egin dute gora.

Elikagaien salmentak jaitsi egin dira (-%2,6), baina gora egin dute gainerako produktuenak (% 8,2) eta automobilgintzarako erregaiarena ere bai (% 8,1).

Landunen kopurua % 2,4 igo da 2021. urtean.

Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek urte arteko % 5,0ko igoera izan dute urtarrilean, lan-egutegiko termino homogeneotan. Aurreko hilabeteari dagokionez, salmentak % 1,8 igo dira.

Elikagaien salmentek % 0,2 egin dute gora 2021eko urtarrilarekin alderatuta, eta gainerako produktuei dagozkionak % 13,3 handitu dira aldi berarekin alderatuta.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 8,8ko gorakada izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute Araban eta Gipuzkoan (-% 3,4). EAEn, orokorrean, % 1,1 egin dute gora.

Txikizkako merkataritza Bizkaia

IV. hiruhilekoa	117.0 adierazle orokorra
	% 3,2 ▲
- Elikadura	% 2,9 ▼
- Gainerako produktak	% 8,6 ▲
- Ibilgailuetarako erregaia	% 4,8 ▲
Gasolina-zerbitzugunerik gabe	% 3,2 ▲
Landunak	% 4,9 ▲

Saltoki handiak Bizkaia

Urtarrila	119,9
Salmenta-indizea	% 5,0 ▲
- Elikadura	% 0,2 ▲
- Gainerako produktak	% 13,3 ▲
Landunak	% 8,8 ▲

EKONOMIA

Beste zerbitzu batzuen salmentak

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektoreko salmentak, urterik urte, % 12,8 igo dira laugarren hiruhilekoan.

Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak izan ezik (-% 6,4), adar guztiek urte arteko igoera erregistratu dute: Ostalaritzak izan du igoerarik nabarmenena: % 47,2. Garraioa eta biltegiatzeak % 30,5 egin du gora, jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak % 6,2 eta informazioa eta komunikazioak % 0,8.

Landunak % 3,1 ugartu dira urtetik urtera. Araban salmenten indizeak % 16,1 egin du gora, Gipuzkoan % 12,2 eta EAEn % 13,0.

2021. urteko balantzea Merkatuko beste zerbitzu batzuetako salmenta metatuek % 8,4 egin dute gora 2021. urtean.

Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak izan ezik (-% 1,5), adar guztiek egin dute gora: Garraio eta biltegiatzeak erregistratu du igoerarik handiena, (% 23,3), ondoren ostalaritzak (% 13,6), informazioa eta komunikazioak (% 1,4) eta jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak (% 0,8).

Landunen kopurua -% 1,3 jaitsi da 2021. urtean.

Zerbitzuen salmentak (Bizkaia)

IV. hiruhilekoa	110,2
Salmenta-indizea	% 12,8 ▲
Landunak	% 3,1 ▲

TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduen sarean 70.726 ostatu-gau erregistratu dira urtarrilean; hau da, 46.863 ostatu-gau gehiago egon dira aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (% 196,4).

Bidaiarien sarrerak ere nabarmen egin du gora (% 177,9). Estatuko bidaiarien kopuruak gora egin du, baita atzerritarrena ere.

Estatukoak izan dira hoteletan ostatu hartu duten bidaiari guztien % 71,6. Gehienak EAEkoak izan dira (% 27,5), ondoren Madrilgo Erkidegokoak (% 20,4), Kataluniakoak (% 11,8) eta Andaluziakoak (% 6,6). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugarienak: Frantzia (% 20,3), Alemania (% 7,7), Herbehereak (% 6,3), Italia (% 5,8) eta AEB (% 5,7).

Batez besteko egonaldia 1,81 ostatu-gau izan da.

Eskuragarri dauden logelen diru-sarrerak % 86,9 handitu dira aurreko urtearekin alderatuta.

Ostatu-gauak

Urtarrila	70.726 ostatu-gau
	% 196,4 ▲

Bidaiarien sarrera

Urtarrila	39.054 sarrera
	% 177,9 ▲

Benchmarkinga. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboan izan da, urtetik urtera % 173,8 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 102,6), Donostian (% 330,6) eta Iruñean (% 76,9).

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 311,8ko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Bartzelonan egon da gorakadarik altuena (% 499,0).

Benchmarkinga

Bilbo	% 196,4 ▲
G-5	% 311,8 ▲
G-3	% 173,8 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 183.141 bidaiari erregistratu ditu urtarilean; beraz, urte arteko % 218,3ko igoera izan du (2021eko abenduan baino 125.602 bidaiari gehiago).

Datu absolutuetan, gora egin du estatuko bidaiarien kopuruak; zehazki, iaz baino 88.317 gehiago daude. Gora egin dute, halaber, nazioarteko hegaldietako bidaiariak (37.148 gehiago), eta, gainera, ehunekoari erreparatuz gero, hobeto suspertu da kopurua.

Egindako hegaldien kopurua, helduerak eta irteerak batuta, 2.229 hegaldikoa izan da urtarilean. Garraiatutako salgaien kopurua 52.598 kg izan da.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), 3.677.166 bidaiari gehiago zenbatu dira 2021eko urtarrilarekin alderatuta. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gorakada handia izan du.

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, 23.451 bidaiari gehiago egon dira. Hiru aireportuetan, halaber, gorakada garrantzitsuak egon dira bidaiarien kopuruan.

Aireko garraioa

Urtarrila	183.141 bidaiari % 218,3 ▲
------------------	-------------------------------

Benchmarkinga

Bilbo	% 218,3 ▲
G-5	% 262,6 ▲
G-3	% 225,3 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Portuko garraioa

Bilboko Portuak 2,5 milioi tonako trafikoa izan zuen urtarilean, hau da, -% 1,9 gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan urtarilean kudeatutako salgaien % 61,2 izan da urtarilean, eta urte arteko -% 4,3ko jaitsiera izan du. Bestalde, solteko salgai solidoen trafikoak ere behera egin du (-% 24,3) eta salgai orokorrenak, aldiz, gora (% 23,1).

Bidaiarien itsas garraioan, 1.669 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran.

Urtarilean ez da itsas bidaiei lotutako turismo-jarduerarik erregistratu.

Itsas garraioa Urtarrila

Portuko trafikoa	2,5 milioi tona % 1,9 ▼
Bidaiariak	1.669 bidaiari % 38,5 ▲

2021. urteko balantzea 2021. urtea amaitzeko, 2020. urtearekin alderatuta, % 5,6ko gorakada egon da portuko trafikoan, eta garraiatutako 31,3 milioi tonatara iritsi da.

Solteko salgai likidoen trafikoan, -% 2,2ko beherakada egon da. Beste alde batetik, solteko salgai solidoen trafikoak eta, oro har, salgaienak gora egin dute (% 26,8 eta % 13,5, hurrenez hurren).

Gora egin dute itsas garraioko bidaiariek (% 62,0). 2021. urtean 13.079 itsas bidaiari eta 14 itsas bidaia erregistratu dira.

Hiri- eta metropoli-garraioa

2021. urtean Bilboko hiri- eta metropoli-garraioetako erabiltzaileen kopurua (Metro Bilbao, Bilbobus eta EuskoTran), guztira, 88,2 milioi bidaiarira heldu zen; beraz, % 20,2 igo da aurreko urtearekin alderatuta.

Nolanahi ere, urteko datu horrek esan nahi du 2019an erregistratutako bidaiari-trafikoaren % 73,9 berreskuratu dela.

Metro Bilbaok bidaiari guztien (66,8 milioi) hiru laurden jaso ditu, hau da, % 19,3ko igoera izan du urtetik urtera.

Bilbobusek bidaiarien bosten bat baino pixka bat gehiago ditu (19,4 milioi) eta % 21,8ko igoera erregistratu du.

EuskoTranen, bidaiarien kopurua % 37,2 handitu da, eta, guztira, 2,1 milioi bidaiari garraiatu ditu.

Hiri- eta metropoli-garraioa

2021	88,2 milioi bidaiari
	% 20,2 ▲

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	22.661	2,4*	2022ko urt.
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	182.079	1,3*	2022ko urt.
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	13.445	29,6	2022ko urt.
Biztanleria aktiboa (milakotan)	176,3	4,6*	2021eko 4 HH
Biztanleria landuna (milakotan)	158,3	4,6*	2021eko 4 HH
Langabeak (milakotan)	18,0	4,0*	2021eko 4 HH
BAlko langabezia-tasa (%)	10,20	-0,08p.p.*	2021eko 4 HH
Merkataritza			
Konsumoko prezioen indizea (KPI)***	103,5	6,0	2022ko urt.
Afiliatutako pertsonak**	19.753	1,6*	2021eko 4 HH
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	117,0	3,2	2021eko 4 HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	119,9	5,0	2022ko urt.
Turismoa			
Bidaia-riaren sarrera	39.054	177,9	2022ko urt.
Ostatu-gauak	70.726	196,4	2022ko urt.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia-ri)	1,81	6,5	2022ko urt.
Enpresa-jarduera			
Industria-ekoizpena (indizea)***	92,3	5,6	2021eko abe.
Merkataritzako sozietate berriak	173	-10,4	2021eko 4 HH
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	110,2	12,8	2021eko 4 HH
Garraioa			
Bidaia-riaren aireko garraioa	183.141	218,3	2022ko urt.
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,5	-1,9	2022ko urt.

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan *** Bizkaia-ri dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EINren, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia




Afiliatutako biztanleak




Txikizkako merkataritza



Aireportuko bidaiariak



Portuko trafikoa



Saltoki handiak eta elikagaien kateak

